



## ZER DA GEOLOGIA?

Geologia Lurraren konposizioa, egitura, dinamika eta historia aztertzen dituen zientzia da. Baliabide naturalak (energia, mineralak, ura...) eta lurrazalean, eta beraz ingurumenean, eragin zuzena duten prozesuak ere Geologiaren aztergaiak dira.

Geologia funtsezkoa da Lur planeta ezagutzeaz gain gure gizartearen beharrezanean modu jasangarrian erantzuteko. Hortaz, klima aldaketak eragindako beroketei erantzuteko behar-beharrezkoa da lur planetaren funtzionamendua ezagutzea. Iraganeko erregistroa aztertuz gaur egungoa ulertu eta etorkizuna aurreikusteko.

Natura eta paisaia geologikoak atsegin badituzu, eta landa lanak motibatzen bazaitu...

# GEOLOGIA, ZURE ETORKIZUNEN AUKERA



[www.ehu.eus/geologia](http://www.ehu.eus/geologia)



[@ehugeologia](https://www.twitter.com/ehugeologia)



[www.instagram.com/ehugeologia](https://www.instagram.com/ehugeologia)



[www.facebook.com/ehugeologia](https://www.facebook.com/ehugeologia)

## NONDIK HASIKO NAIZ?

Geologiako Gradua, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU), Zientzia eta Teknologia Fakultatean ikasten da. Zientzia eta Teknologia Fakultatea Leioako Campusean dago (Bizkaia).

## NOLAKOA DA GRADUA?

Geologia gradua lau urtetakoa da, erlatiboki **teoria ordu gutxi eta praktika ordu asko** daude, bai **laborategietan zein landan**. Laborategietan lupa, mikroskopioekin, etab. lan egiten da eta ordenagailu praktiketan teledetekzioa edota estadistika aplikazioak erabiltzen dira, adibidez ikerketa geokimikoetarako balio dutenak.

Geologian funtsezkoa da landa praktika. Horregatik graduan zehar egun osoko **50 landa-irteeratik gora eta astebeteko 4 kanpamentu** egiten dira.

## ATZERRIAN IKASTEKO AUKERARIK BADAGO?

Espainia, Europa zein Ertamerika eta Hegoamerikako unibertsitateekin hitzarmenak daude, Geologia ikasleak kurtso erdi edo osoa atzerrian ikasteko. Programa hauek **ERASMUS+**, **SICUE** eta **UPV-AL** programak dira (Norvegia, Alemania, Frantzia, Italia, Portugal, Kanada, Ekuador...).

## UPV/EHU<sup>n</sup> IKASITA, GERO KANPOAN LAN EGIN DEZAKET?

Geologia ikasketek Lur Zientzietako oinarrizko ezagutza bat ematen dute, graduako azken urteetan aplikazioak ikusten direlarik. Jakintza globala izanik, **gero munduko edozein tokitan** lan egin daiteke.

## GEOLOGIA ETA GIHak

Geologia erabat lerrokatzen da Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH). Alde batetik, **klima eta ingurugiro aldaketaren ikerketan oinarrizko zientzia** da, aintzinean gertatutako klima eta ingurugiro aldaketen emaitzak aztertzen dituelako, etorkizunekoak aurreikusteko. Bestalde, **ikuspuntu geologikoak baliabide naturalen ustiapen jasangarria** diseinatzea baimentzen du.



[www.ehu.eus/geologia](http://www.ehu.eus/geologia)

## GRADUA ETA GERO ZER?

### JARRAIPEN AKADEMIKOA:

- **Hezkuntzan** (DBH eta Batxilergoko irakasle):



Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra.

- **Ikerketan:**



Master Ofizialak.



Doktoregoa.



Berezko Master eta Graduondokoak.

### JARRAIPEN PROFESIONALA:

Erkidego autonomoan, estatuan zein nazioarte mailan hainbat lan publiko (Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritza) zein pribatuetan (enpresetan).

- **Ingurumena eta arrisku geologikoak**

Lurzorua eta lurzoru kutsatuak eta inguru degradatuak.

Lurralde-planifikazio jasangarria eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

Hondakinen gestioa (hiri-hondakin solidoen zabortegeak, ...).

Uholde arriskuak; lubiziak; lurrikarak; bolkanak; itsasertzaren erantzuna enbaten aurrean, ...

- **Baliabide Naturalak**

Energia berriztagarriak: geotermia, marea-energia, ...

Mineral eta metal estrategikoak.

Ura eta uraren gestioa.

- **Klima-aldaketa: beroketa globala**

CO<sub>2</sub> biltegiak.

Itsas-mailaren igoera.

- **Natura eta kultura ondarea**

Geodibertsitatea.

Monumentuen kontserbazio eta zaharberritzea.

Paisaiaren kudeaketa.

- **Azpiegitura Zibilak**

Azterlan geoteknikoak.

